



EDOZEIN MOTATAKO MERKANTZIEN ZAMALANETARAKO EDO APARKAMENDU ESKLUSIBORAKO ERAIKIN ETA ORUBEETARA IBILGAILUAK SARTZEARI BURUZKO ORDENANTZA

I. KAPITULUA

Kontzeptua eta motak

1. artikulua

- 1.- Ordenantza honen ondorioetarako, bide publikoko pasabidetzat joko da ibilgailuen sarrera eta irteera erraztera beren-beregi zuzenduta dagoen espaloi eta zintarriaren egitura aldaketa oro, egiten deneko eraikuntza lokal eta orubeekiko, beti ere erabilera hauetarako indarrean dauden Udal Arau Subsidiarioen zehaztapenekin bat etorritik eta dagokion nahitaezko baimena badute. Espaloi eta zintarriaren egitura aldaketatzat hartuko da hauetan egindako edozein beheragune, baita espaloia eta zintarria oso-osorik edo zati batez kendu edo ez egotea.
- 2.- Bestelako sarbide motak debekatuta daude aldapa, behin-behineko instalazio edo inguruabarrak direla eta elementu higigarriekin eragindakoak, hala nola, egurrezko edo metalezko gauzak, adreiluak, hondarra, etab. jartzea, horretarako aldeztatik baimen berezi bat lortzen ez bada.

2. artikulua

- 1.- Ibilgailuentzat pasabideak izaera mugagabearekin edo aldeztatik finkatutako iraupenarekin eman ahal izango dira.
- 2.- Batzuen eta besteen erabilpena iraunkorra edo ordutegiaren arabera izan daiteke.

3. artikulua

- 1.- Erabilera iraunkorreko pasabideetan ibilgailuak sartu eta irten ahal izango dira eguneko hogeita lau orduetan. Beraien aurrean ezin izango da ibilgailurik aparkatu edo gelditu, ezta titularrarena ere.
- 2.- Ordutegiaren arabera pasabideetan beraien aurrean aparkatu edo gelditzea mugatuta izango da dagokion jarduerarako adierazitako lanegunean. Kasu berezietan eta aldeztatik aurreko justifikazioarekin, ordu konkretu batzuetarako ordutegiaren arabera pasabidea baimendu ahal izango da, guztira eguneko zortzi ordu baino gehiago ezin izango direlarik izan. Orokorrean finkatutako ordutegia goizeko 9etatik eguerdiko 13.30etara eta arratsaldean 16etatik 18,30etara izango da.

4. artikulua

Aurreko artikuluetan xedatutakoak ez du eragotziko halaberrez edo une batez ibilgailua pasabideen aurrean gelditzea, zirkulazioak hala eskatzen duelako edo arauzko betekizun bat betetzeko.

II. KAPITULUA

Baimenak orokorrean

5. artikulua

- 1.- Indarrean dauden Udal Arau Subsidiarioen zehaztapenekin bat datorren eraikin edo oruberako pasabide oro, manuzko Jarduera Baimena badu, dagokion Ibilgailuen Pasabiderako baimena tramitatu beharko du Udal honetan.
- 2.- Eraikin eta orubeen jabeak eta negozioen lokalean jabe edo errentariek bakarrik eskatu eta, dagokion ibilgailuen pasabidearen titularrak izan ahal izango dira, pasabidea haien zerbitzurako

eskatu edo beraien erabilera eskusiborako.

3.- Baimenaren titularrak izango da ibilgailuen pasabidearen erabiltzaileei dagozkien betebeharren erantzule bakarria, direnak direla ere.

6. artikulua

1.- Ibilgailuen pasabideak diskrezionalki baimenduko dira, gainontzekoaren kaltetan gabe.

Baimenak ez du inolako eskubide subjektiborik sortzen eta titularrari eskatu ahal izango zaio, edozein unetan, bere kontura ken dezala eta espaloia eta zintarria lehen bezala utz ditzala.

2.- Ibilgailuen pasabidearen eraiketa, eraberritze edo ezabaketa pasabidearen titularrak burutuko du, Udalaren ikuskaritza teknikoaren pean, honek beren-beregi baimentzen duenean.

3.- Pasabiderako eskubidea izateko nahitaezko betekizunak izango dira:

a) Aparkamendua 4 kotxerako izatea famili bakarreko edo biko etxebizitzaren kasuan izan ezik.

b) Aparkamenduek gutxienez 20 metro karratu edo gehiago izango dituzte plaza bakoitzeko.

Neurri horiek lokalaren azalera erabilgarriarenak dira, hau da, ixketen barruko aldeko perimetro barruan dagoena, aparkamendu horietan dauden zerbitzu eta instalazioetara zuzendutako azalera salbu.

c) Garaje-aparkamendu plaza bakoitzak 3,20 x 4,50 m. tako gutxienerako gunek bat izango du eta 2,20 m. tako gutxienerako altuera batekin, zirkulazio gunetan antzeko kanalizazio edo instalazioekin ezin izango delarik murriztu.

d) Pasabidearen tamaina gutxienez 3 metro linealetakoa eta gehienez 6 metro linealetakoa izango da.

4.- Udalak pasabide baimena edo aparkamendua edo garajea ezartzekoa uka dezake, finka horiek joan-etorriarengatik edo hirigintza ezaugarri bereziak dituztelako hala egitea gomendagarria denean, salbu eta kasu bakoitzerako beharrezkoak diren neurri zuzentzaileak hartzen direnean. Aparkamenduak edo garajeak ezartzea ukatzeak, nahitaezkoa izango balitz, ez ditu jabeak betebeharrak horretatik salbuetsiko, toki eta modu egokian dauden beste instalazio batzuei dagokienez.

Baimenak ematea.

7. artikulua

Ibilgailuak pasatzeko baimena emateko, ondoko arauak kontutan izango dira:

a) Erabilera iraunkorreko pasabidea emango zaie gutxienez lau plaza edo kamioi birekin ibilgailu arinak aparkatzera zuzendutako lokalei, famili bakarreko edo famili biko etxebizitzak direnean izan ezik.

b) Ordutegiaren arabera pasabidea emango zaie ibilgailuak konpontzeko tailerrei. Salbuetsita egongo dira barruan zamaketa lanak egiten dituzten lokal industrial eta merkataritzakoak, denbora batetarako egitea gomendatzen den kasu berezi posibleetan izan ezik. Biltegien kasuan, pasabidea eman ahal izango da ibilgailuen zamaketa lanetara zuzenduta dagoen lokalaren barruko azalera erabilgarria 150 metro karratu edo gehiagoko bada.

8. artikulua

1.- Aurreko artikuluan xedatutakoa zehatz betetzeko, ibilgailuen pasabiderako eskaerak lokalaren benetako azalera eta izan ditzakeen gehieneko kopurua adieraziko du.

2.- Eskariari ondokoa erantsiko zaio:

a) 1:500 eskalan kokapen plano eta lokalekoa 1:100 eskalan, ibilgailuak gordetzera edo dagokionean zama-lan egitera zuzendutako zatia beren-beregi adieraziz.

b) Eskatzailea lokala beste helburu edo jarduerara baturako ez erabiltzera behartzen deneko eskatzailearen adierazpena.

3.- Ibilgailuen pasabidea eskatzen dutenek Udal Administrazioari adierazi beharko dizkiote lokal horrek izan beharrekoen kopuru eta ezaugarriak, baita baimena lortu eta biharamunetik hasita ematen diren aldaketak.

9. artikulua

Baimena lortu baino lehen, dagozkion tributu edo prezio publikoak ordaindu izana egiaztatu beharko dio eskatzaileak Udalari.

Ibilgailuen pasabideen leku aldaketa, handiagotze, txikitze edo kentzea.

10. artikulua

- 1.- Ibilgailuen pasabideen leku aldaketa, handiagotze, txikitze edo kentzea titularrak eskatu beharko du.
- 2.- Leku aldaketak pasabide baimen berri bat ematetzat joko dira, dagoena ezabatzeak sortzen dituen gastuak ordaindu beharko direlarik.
- 3.- Ibilgailuen pasabideen leku aldatze eta handiagotzerako baimenek pasabide berrien tramite berdina izango dute, baita eskubide eta gordailuak tasatzerakoan ere.
- 4.- Txikitzeak zati batean kentzetzat hartuko dira eta, dagokionean, gordailua gutxituko da.
- 5.- Emandako gordailua titularrari itzuliko zaio kendu dela egiaztatu ondoren.

Baimenak ezabatzea.

11. artikulua

Ibilgailuen pasabideen baimenak ondoko kasuetan ezabatuko dira:

- a) Titularrak zorua edo pintura artatze egoera onean ez izateagatik
- b) Ibilgailuen pasabidea ez erabili edo gaizki erabiltzeagatik.
- c) Lokalak eskatutako edukiera ez izateagatik edo titularrak adierazitako helburuetarako oso-osorik ez erabiltzeagatik.
- d) Baimena ematea arrazoitu zuten inguruabarrak aldatzeagatik.
- e) Orokorrean, Ordenantza honek titularrari ezartzen dizkion betebeharrak ez betetzeagatik.

III. KAPITULUA

Pasabide eta zintarriek izan beharreko baldintzak

12. artikulua

- 1.- Ibilgailuen pasabidearen zintarriak, erabilera iraunkorrekoak eta ordutegiaren arabekoak, xingola zuri-gorriekin margotuta joan beharko dira.
- 2.- Eraikinaren fatxadan eta ibilgailuen pasabiderako sarreraren ertzetan, plaka bi jarriko dira eta bertan ondokoa adieraziko da:
 - a) Erabilera iraunkorreko ibilgailuen pasabiderako, goiko aldean "Ibilgailuen pasabidea" jarriko da, erdi aldean aparkatzea eta gelditzea debekatua eta beheko aldean udal baimenaren zenbakia.
 - b) Ordutegiaren arabeko pasabiderako goiko aldean "Ibilgailuen pasabidea" jarriko da, erdi aldean aparkatzea eta gelditzea debekatua eta beheko aldean debeku horren ordutegia ezarriko da, udal baimenaren zenbakiarekin batera.
- 3.- Aurrekoan ezarritakoa gorabehera, alkatetzak ondorio horietariko egokiagotzat jotzen dituen bestelako bereizgarriak jartzea erabaki dezake.

13. artikulua

- 1.- Guztira hiru tonako pisua duten ibilgailuetara arte, ibilgailuek erabiltzeko pasabidearen zorua inguruan deneko espaloia berdina izango da, lurzoru finkatuaren gainean gutxienez 15 zentimetrotako lodiera izango duen hormigoizko zimenduarekin.
- 2.- Ibilgailuen pasabidea hiru tona baino pisu handiagoa duten kamioientzako denean, zorua baldosa arruntekoa izango da eta gutxienez 25 zentimetrotako lodiera duen hormigoizko zimendua izango du, hormigoizko metro kubikoko "portland" zementuzko 300 kilogramotako gutxienezko dosifikazioarekin.

IV. KAPITULUA

Pasabidearen titularraren betebeharrak.

14. artikulua

Ibilgailuen pasabidearen titularrak ondoko betebeharrak izango ditu:

- a) Zorua eta seinaleak artatzea.
- b) Zintarria margotzea eta dagozkionak, ordenantza honetan ezarritako moduan, beti ere udal Administrazioak eskatzen badu eta, edozein kasutan ere, urtean behin.
- c) Jarraian adierazten den amortizazio epea igaro ondoren zorua berriztatzea, Zerbitzu Tekniko eskudunek epe berri bat adierazten dutenean izan ezik.
 - Mortairu konprimatuko lauza arruntekin zoladura: 12 urte.
 - Masa hormigoizko zoladura: 12 urte.
 - Asfalto urtuzko, hormigoizko edo mortairu asfaltikozko zoladura: 18 urte.
 - Edozein motatako lauza berezidun zoladura: 10 urte.
 - Inguruko espaloiak izan dezakeen bestelako edozein zoladura mota: Udal Bulego Teknikoak bere lanetarako ezarritako duen amortizazio epe berdina.
- d) Ibilgailuen pasabidea bere kontura egitea, Udalak agindutako ohiko eta ezohiko lanekin.

V. KAPITULUA

Eraikin berriak eraiki edo eraberritzeko lanetarako ibilgailuen pasabidea

15. artikulua

- 1.- Eraikin berriak eraikitze edo eraberritzeko lan orotan kamioiek espaloitik pasatu behar badute, dagozkion ibilgailuen pasabidea eraiki beharko da, aurrez ezarritako iraupen eta ordutegiarekin, dagozkion eskubide eta tasak ordaindu ondoren, baimena ohiko prozedura bidez eskatu beharko delarik.
- 2.- Ondorio hauetarako, lanek sei hilabete baino gehiago ez badute irauten, dagoen zoladura erabili ahal izango da, udalak aurkakoa erabaki ezean, baina une oro oinezkoak pasatzeko moduan izan beharko da. Espaloia eta zintarria berreraikiko dira lanak amaitu ondoren, ibilgailuen pasabideak eskatzen badu.
- 3.- Lanen iraupena aipatu sei hilabete horiek baino gehiagokoa bada edo berariazko udal ukatze bat badago, pasabidea 13. artikuluan ezarritako baldintzen arabera eraiki beharko da.
- 4.- Edozein kasutan, lan gunean ureztatzeko mahuka bat jarriko da kamioiak garbitzeko.

VI. KAPITULUA

Zigorrak

16. artikulua

- 1.- Udal baimenik izan gabe ibilgailuen pasabide bat eraikitzen duenari, Administrazioak eskatuko dio hamabost egunetako epean aurreko egoeran jar dezala espaloia eta zintarria, bere kontura.
- 2.- Hala ere, ibilgailuen pasabideak edo erreserbak Ordenantza honetan ezarritako baldintzak betetzen baditu, arau-hausleak adierazitako epean dagozkion baimena eskatu ahal izango du, eskubide edo tasen bikoitza ordaindu ondoren.
- 3.- Epe hori igaro bada baimena eskatu gabe edo espaloia eta zintarria lehen zeuden bezala utzi gabe, Alkatetzak arau-hausleari 1.000 pezetatako isuna jarriko dio, araua hausten deneko egun bakoitzeko.

17. artikulua

- 1.- 14. artikuluan adierazitakoa ez bada betetzen oso-osorik edo zati batez, Administrazioak

ibilgailuen pasabidearen titularrari eskatuko dio zortzi egunetako epean pasabidearen akastun artapena zuzendu dezan.

2.- Epe hori igaro ondoren, titularrak araua hausten jarraitzen badu, Alkatetzak 500 pezetatako isun bat jarriko dio araua hausten dueneko egun bakoitzeko.

18. artikulua

30 egun igaro ondoren, ibilgailuen pasabidearen titularrak 17 eta 18. art.etan ezarritakoa beteko ez balu, Udalak burutuko ditu lanak, bere kontura, ezarritako zigorrak eragingarri bihurtzearen kaltetan gabe.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENENGOA.- Ordenantza hau indarrean jarriko da behin-betiko onarpena iragarri eta biharamunetik.

BIGARRENA.- Ordenantza hau indarrean egon aurretik emandako baimenak, emate horretan zehaztutako baldintzetara egokituko dira. Tramitatzen ari diren espedienteak ordenamendu honi egokituko zaizkio bi hilabeteko epean.

HIRUGARRENA.- Nolabait ordenamendu honetan ezarritakoaren aurka doazen ordenantza, bando, erabaki eta ebazpenak indarrik gabe geldituko dira.

LAUGARRENA.- Alkatetzari aurreko arauak interpretatu, argitu eta garatzeko baimena ematen zaio beren-beregi. Dagokionean, Ordenantza honen manuetan izan daitezkeen arauko hutsuneak osatu eta hobeto aplikatzeko egoki eta beharrezko diren xedapenak eman ahal izango ditu, auzi bidean izan daitezkeen errekurtsoen kaltetan gabe.

Amorebieta-Etxano 1990eko maiatzaren 9a,

ARKITEKTO AHOLKULARIA
RAFAEL ANZOLA ARRESE